



Denbora-

1 Puzzlea

Arbelera atera du irakasleak Markel, eta lagunek argazkia egin diote. Argazkiari hainbat zati kendu dizkiogu.



Zein hutsunetan jarri behar da zati bakoitza?



2 Sinonimoak

Lagun bakoitzari bina gozoki eman behar dizkio Izaskunek: esanahi bereko biak. Nola banatuko ditu?

Erantzunak: 1.-1-b, 2-d, 3-a, 4-f, 5-h, 6-g, 7-c eta 8-e. 2.-Lurtar-mundutar, dolore-min, mentura-zori, serioski-benetan eta aspertu-gogaitu. 3.-2 eta 4. 4.-Lima-Peru, Quito-Ekuador, Bogota-Kolonia eta Managua-Nikaragua. 5.-a.



3 Giltzak

Ganbarako bi giltza eman dizkiote Xubani. Bi giltza berdin-berdin ditu, beraz. Zein?

- pasak



4 Sagu Jakintsua

Euskal Herriko txokoak ongi ezagutzen ditugu, eta nazioartekoak? Lotu hiriburu bakoitza bere herrialdearekin.

LIMA
QUITO
BOGOTA
MANAGUA



EKUADOR
KOLONBIA
NIKARAGUA
PERU



5 Itzalak


Graziana sorginak erratza galdu du berriro ere, eta berria erosi behar izan du. Zein da erratz berriaren itzala?

Jolasa

Ordularia

Tik-tak, tik-tak... Ordulariaren orratzak aurrera doaz. Orratza zure albora iristen

den heinean, egin salto, ordularia geratu egingo da bestela!



1 Ordulariaren orratza soka luze bat izango da. Jokalarietako batek soka hartuko du eskuan, eta biribilaren erdian jarriko da. Haren bueltan ezarriko dira gainerako jokalariek guztiak, ordulariaren orduak balira bezala.

2 Guztiak prest daudenean, ordularia martxan jarriko du biribilaren erdiko jokalaria. Erdiko jokalaria biraka hasiko da, ordulariaren orratzen norabide

berean; eta jokalariairekin batera, baita soka ere, noski.

3 Biribilean dauden jokalarien oinetara soka iristen denean, jokalariek salto egin behar dute. Orratza gero eta azkarrago joango da mugitzen, eta jokalariek adi-adi egon beharko dute. Sokak jokalariren bat ukitzen badu, jokalaria jokoz kanpo geratuko da. Saltoka geratzen den azken jokalaria izango da irabazlea.